



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko otsailaren 13an

13 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren Erakunde Autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzkoa ([2. or.](#)).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren Erakunde Autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 5ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2001eko urtarrilaren 29an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren Erakunde Autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 108 eta 125. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren Erakunde Autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko Foru Lege proiektua premiazko prozeduraz bideratzea.

Bigarrena.- Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **zortzi egun balioduneko epea irekiko da, 2001eko otsailaren 23ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 2001eko otsailaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren Erakunde Autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzkoa

Foru Lege honek asmotan duen lege erreforma ezinbesteko eta luzaezineko zeregina zen, sakon-sakonerainoko arrazoiak baitaude hura justifikatzeko. Hona hemen laburzki arrazoi horietako batzuk:

– Legea Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 14ko 185/1995 epaiaren arabera moldatu behar da. Epai horrek agintzen duenez, inkonstituzionalak dira tasa eta prezio publikoei buruzko 8/1989 legeko 24. artikuluko a) eta b) idatz-zatiak eta partez c) idatz-zatia ere bai, prezio publikoen zergagaiaren definizioek ez baitute begiratzen Lege erreseberaren printzipioa.

Uztailaren 24ko 144/1987 Legegintzako Foru Dekretua, zeinak onesten baitu Foru Komunitateko tasa eta prezio publikoen testu artikulatua, ez da moldatu Konstituzio Auzitegiaren epai arestian aipatuaren arabera eta, hortaz, zalantzan jartzekoa da horko aginduren batzuk konstituzionalak ote diren. Beharrezkoa da, azken batez, tasa eta prezio publikoen araubide juridikoa eta Konstituzioak horren gainean ematen dituen aginduak bat etorraraztea.

– Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrekin bat etorri beharra. Foru lege horretan definitzen diren tasa eta prezio publikoen kontzeptuak ez datoz bat 144/1987 Legegintzako Foru Dekretuak ezartzen dituenekin. Desabeno hori, bistan da, lehenbailehen konpondu beharrezkoa da Foru Komunitateko tributu sisteman behar den koherentzia eta sistematizazioa lortzeko. Hartarako, Foru Lege proiektu honek apirilaren 1ean indar hartzea proposatzen da, hau da, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrak indar hartzen duen egun berean.

– Martxoaren 10eko 5/1995 Foru Legea (Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa) moldatu da Konstituzio Auzitegiak emandako doktrinaren arabera, eta hortaz Foru Komunitateko tasa eta prezioak arautzeko Legegintzako Foru Dekretuarekin kontraesan garbian dago bera ere. Beraz, tasa eta prezio publikoen kontzeptuak diferenteak dira gaur Foru Komunitateko Administrazioaren esparruan eta udal Administrazioarenean, eta komeni da diferentzia hori berdintzea.

– Zuzenbide publikoko dirusarrerak arrazionalizatu eta sistematizatu beharra. Gaur indarra duen araudia zaharkiturik dago hainbat alderditan, Foru Komunitateko Administrazioak eginkizun eta zerbitzu berriak bereganatu baititu, araudia modernizatzea eskatzen dutenak. Bestalde arrazoi teknikoek ere, arauak aplikatzean izandako esperientziaren ondoriozkoek, bultzatzen dute arauen aldaketa, zeren denboraren joanarekin egoera berriak sortzen baitira, arauak aintzat hartu beharrak. Tasa eta prezio publikoak kudeatzearen inguruan hainbeste tributu eta kontratu mota izateak ez du zertan eragotzi ekintzarako jarraibide batzuk ezartzea, zergadunaren segurtasun juridikoa handitu beharrez emanak, argiro zehazteko tasa eta prezio publikoen kontzeptua ez ezik, tasa guztien figurak berak ere bai.

Ogasun Publikoari buruzko eskuliburuetakoa gai tradizionala izan da aztertzea zein irizpide erabiltzen duten Administrazio publikoek eskuragai dituzten zuzenbide publikoko sarreraren koadroa sailkatzeko. Seligma Estatu Batuetako ikertzaileak XIX. mendearen bukaeran irizpide bat eman zuen agertzeraz gaur arte indardun iraun duena: haren ustez, zuzenbide publikoko dirusarrerak partikularren borondatea zein den, horren arabera sailkatu behar dira. Bi dirusarrera mota bereizten ditu: kontratuen ondoriozkoak eta koakzioaren ondoriozkoak. Lehenbizikoetan norberaren borondateak agintzen du eta aditzera ematen dute ondasun bat saltzeko edo zerbitzu bat emateko Estatuarekin egiten diren kontratuak hobetu egiten direla. Bigarrenak, berriz, Estatuak zerga kobratzeko duen ahalmenak aginduak dira eta zerga, tasa eta kontribuzio bereziak dira.

Illo beretik, Foru Komunitatearen zuzenbide publikoko dirusarrerak honela sailka daitezke: zerga-dirusarrerak, zuzenekoak nahiz zeharbidekoak izan; herritarrek pagatzen dituzte, Administrazioak inolako kontraordainik ematen ez diela. Eta bestetik herritar horiek Foru Administrazioarengandik hartzen dituzten zerbitzuen alderako dirusarrerak, hau da, funtsean, tasa eta prezio publikoak. Zerga dirusarreraren oinarria da zergadunen kontribuzio gaitasuna edo pagatzeko gaitasuna;

zerbitzuak hartzearen alderako zuzenbide publikoko dirusarrerak, berriz, onura edo baliokidetzaren printzipioa dute oinarri. Printzipio horren arabera, herritarrek zerbitzu horiek ematen dieten onuraren proportzioan hartu behar dutela parte zerbitzuen finantzazioan. Gaitasun ekonomikoaren printzipioak, berriz, agintzen du herritarrek beren gaitasun ekonomikoaren arabera (beren errentan, ondarean edo kontsumoan ageri dena) hartu behar dute parte zerbitzuen sostenguan.

Orain arte eskuarki gaitasun ekonomikoaren printzipioa hautatu da zerga sistemak mamitu eta garatzeko. Hala ere aspaldi honetan joerak agertzen ari dira baliokidetzeta eta onuraren printzipioari garrantzi handiagoa emateko, herritarrek gero eta zerbitzu publiko gehiago eskatzeko joerari buru egiteko eta kontuan harturik Administrazio publikoak diruz hornitzeko premia handian daudela. Illo horretatik, aipa dezagun jendarteko iritzia ere gero eta gehiago zerbitzua eta gastu Publikoa lotzearen alde ageri dela, horrek zerga kontzientziaren gorakada sortzen baitu, herritarrek lotzen baitituzte egindako paguak eta jasotako zerbitzuak. Azken batez, Foru Komunitateko zuzenbide publikoko dirusarrera sistemako bi printzipioak uztartzea da asmoa: onura edo baliokidetzeta, bategatik, eta gaitasun ekonomikoarena, bestetik.

Foru Lege hau ez da, ordea, mugatzen tasa eta prezio publikoen kontzeptuak arautu eta definitzera; aitzitik, behar bezain xehero deskribatzen ditu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa figura guztiak ere.

Foru Lege proiektu honen arabera, tasak dira honako zergagaietako bat duten tributuak: jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egitea, bereziki subjektu pasiboari erasan edo eragin egiten dioten jarduerak zuzenbide publikoko araubidean egitea, honako inguruabar hauetako bat gertatzen denean: interesatua delako zerbitzu edo jarduera nahitaez eskatu edo jaso beharrean egotea eta delako zerbitzu edo jarduera sektore pribatuak emana ez izatea. Nahitaez eskatu beharra dagoela juzgatuko da lege edo erregelamendu xedapenek behartu badute hartara eta delako ondasun, zerbitzu edo jarduerak ezinbestekoak badira eskatzailearen bizimodu pribatu nahiz sozialerako.

Azken batez, kontzeptu horretatik berez segitzen da koakzioaren ezaugarria, eta hortik, halaber, haren erregulazioak gaineko duen lege erre-serba heldu da, zeren ondarearen gaineko prestazio bat koakzioz ezartzeak (hau da, alde bakar batetik subjektu pasiboaren laguntzarik nahi onespenerik izan gabe pagatzeko eginbidea ezar-

tzeak) sortzen baitu zerga gaietako lege erreserba. Printzipio honek ezinbesteko egiten du tributu bat sortu edo haren osagai funtsezkoak finkatzeko lege bat ematea. Hala ere delako erreserba erlatibo da, zilegi baita Erregelamendua ere lagungarri erabiltzea, baina betiere legeko printzipio edo irizpideak begiratzen direla. Azken batez, zilegi da lege erreserbaren zorrotasuna eta behar den Administrazio malgutasuna uztartzea.

Ez da zilegi izanen tasen zenbatekoak, oro har, kasuko zerbitzu edo jardueraren kostu egiteko nahiz igarritakoari goiti egitea; zenbait nabardura beharrezko ezartzen dira, hala ere.

Foru Lege proiektu honen arabera, Prezio Publikotzat jotzen dira zerbitzu edo jarduerak zuzenbide publikoko araubidean eman edo egitearen aldera pagatzen diren diruordainak baldin eta interesatuak bere gogoz eskatzekoak badira eta delako zerbitzu edo jarduerak sektore pribatuak ematen baditu. Hortaz, borondatezkoatasunaren eta monopoliorik ezaren printzipioak biak batera erabili behar dira, eta ez bata ala bestea.

Erregulazio honen arabera, beraz, murriztu zaio eremua prezio publikoaren kontzeptuari, orain honela ulertzen baita: Administrazioak zerbitzu edo jarduerak zuzenbide publikoko araubidean eman edo egitearen aldera pagatzen diren diruordainak baldin eta interesatuak bere gogoz eskatzekoak badira, delako zerbitzu edo jarduerak sektore pribatuak ematen baditu eta administratuak nahitaez eskatu beharrak ez badira. Hartara, bada, tasa eta prezio publikoen figuretara ekarri dira zenbait zerbitzu, foru lege honetan egiten den kontzeptu mugaketaren arabera moldatzeko, zenbait kasutan Nafarroako Gobernuaren Departamentuek gaurkotu egin dute teknikoki eta ekonomikoki zenbait tasa mota.

Nafarroako Gobernuak ezarriko du zein zerbitzu edo jarduera diren prezio publikoen pean jartzeko modukoak, baina prezio publiko horien kopurua prezioak kobratu behar dituen organoak gaineko duen Departamentuak finkatuko du edo haien kudeaketaren ardura duen erakunde autonomoak, gaineko duen Departamentuak aurrez baimena emanik. Prezio publikoen kopuru hori gutxienez delako zerbitzu edo jarduerak eman edo egiteak sortzen dituen diru kostuak berdintzeko adinakoa izanen da, zenbait zehaztapenekin.

Foru Lege honetako IV-XII tituluak xehetzen dituzte Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa guztiak, kasuan-kasuan zehaztuz zein den zerga-gaia, zein subjektu pasiboa, zerga sorrera, tarifa eta salbuespenik ezartzen bada, zein diren.

I. TITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Foru legearen helburua.

1. Foru lege honen helburua da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoen araubide juridikoa arautzea.

2. Hauek dira tasa propioak:

a) Foru lege honetako IV-XII tituluetan aipatzen direnak.

b) Foru Komunitateak gero batean ezartzen dituenak.

c) Hitzarmen Ekonomikoak hala aginduta ordainarazterakoan araubide komuneko arau berberak aplikatu behar zaizkienak.

d) Estatuak edo Udalek Foru Komunitateari eskualdatzen dizkieten tasak, Foru Komunitateari transferitutako zerbitzu edo eskumenen gainekoak direlako.

3. Prezio publiko propioak dira foru lege honek agintzen duenaren arabera ezartzen direnak eta aurreko leerroaldeko d) letran aipatzen den kasutik sortzen direnak.

4. Foru lege honetako aginduak ez zaizkie honako hauei aplikatuko:

a) Zuzenbide Pribatuko arauen menpeko entitate edo erakundeek eman edo egindako zerbitzu edo jardueren alderako diru ordainak.

b) Nafarroako Merkataritza eta Industriaren Ganberako ganbera baliabide iraunkorra, bere arau berariazkoa izanen baititu.

2. artikulua. Araubide juridikoa.

1. Tasa eta prezio publiko propioak pagarazteko, Foru Komunitateak aintzat hartuko du zer agintzen duten Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoko 45. artikulua, hura garatzeko ematen diren erregelamendu arauak eta kasurako diren beste xedapenek.

Tasei Tributuei buruzko Lege Orokorra aplikatuko zaie.

2. Foru lege honetako 1. artikuluko 2. idatz-zatiko c) eta d) letran aipatzen diren tasek, eta idatz-zati eta artikuluko bereko d) letran aipatzen den kasuko prezio publikoek, Estatuaren araudia izanen dute jarraibide foru lege honi kontra egiten ez dioten guztian harik eta Foru Komunitateak bere arauak ematen ez dituen artean.

3. artikulua. Aurrekontu araubidea.

1. Foru lege honetan arautzen diren baliabideak Foru Komunitateko diruzaintzan edo Ekonomi eta Ogasun kontseilariak baimendu dituen banku kontuetan sartuko dira.

2. Baliabide horiek Nafarroako Foru Komunitateko aurrekontuetako dirusarrerak dira eta kasuan kasuko eginkizunak osotara bururatzeko erabiliko dira, non eta foru lege batek erabilera zehatz eta jakin bat ematen ez dien.

4. artikulua. Agintari eta funtzionarioen erantzukizuna.

1. Agintari edo funtzionario batek bere gogoz eta erruz bidegabeki eskatzen badu tasa eta prezio publiko bat, edo behar baino gehiagoko kopuruan eskatu, diziplina hutsegite oso larria egiten du, haren jokakerak sortzen dituen beste erantzukizunak ezertan galarazi gabe.

2. Modu berean Foru lege hau eta gai honen gaineko beste arauak hausten dituen egintzarik egiten badu, Foru Komunitateari ere eman beharko dio, gainera, egindakoaren kalteordaina.

II. TITULUA

Tasak

5. artikulua. Kontzeptua.

Tasak dira honako zergagaietako bat duten tributuak: jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egitea, bereziki subjektu pasiboari erasan edo eragin egiten dioten jarduerak zuzenbide publikoko araubidean egitea, honako inguruabar hauetako bat gertatzen denean:

a) Interesatua delako zerbitzu edo jarduera nahitaez eskatu edo jaso beharrean egotea. Kasu hauetan juzgatuko da nahitaez eskatu beharra izan dela:

Lege edo erregelamendu xedapenek behartu badute hartara.

Delako ondasun, zerbitzu edo jarduerak ezinbestekoak badira eskatzailearen bizimodu pribatu nahiz sozialerako.

b) Delako zerbitzu edo jarduera sektore pribatuak emana ez izatea, araudi indardunak sektore publikoaren aldeko erreserba ezarrita eduki ala ez.

6. artikulua. Legezkontasunaren printzipioa.

1. Tasak ezarri, aldatu edo kentzeko, eta bai haietako bakoitzaren osagai funtsezkoak arautzeko ere, foru lege bat eman beharko da, Tributuei

buruzko Foru Lege Orokorreko 11. artikulua agintzen duenarekin bat.

2. Foru lege baten bidez hartarako baimena ematen bada, zilegi izanen da zehaztea zer kopuru eskatzen ahal diren tasa bakoitzerako lege horrek ezartzen dituen kuantifikazio osagai edo irizpideen arabera.

7. artikulua. Zergagaia.

Zilegi izanen da jabari publikoaren erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren aldera edo zuzenbide publikoko araubidean zerbitzu edo jarduerak egiteagatik honako tasa motak ezartzea:

a) Denetariko Administrazio lizentzia, bisatu, matrikula edo baimenak tramitatu edo ematea.

b) Parte batek eskatuta zertifikatuak edo dokumentuak ematea.

c) Liburuak legeztatu eta zigilatzea.

d) Begiraletza, zuzendaritza, ikuskatze, ikeritze, aztertze, txosten, aholku, konprobazio, arakapen edo prospekzio jarduera tekniko eta fakultati-boak.

e) Proiektu, konprobazio, kontrastazio, entsegu eta homologazioak aztertzea.

f) Balorazioak eta tasazioak.

g) Erregistro ofizial eta publikoetako inskripzioak eta anotazioak.

h) Zerbitzu akademikoak eta osagarriak.

i) Portu eta aireportu zerbitzuak.

j) Osasun zerbitzuak.

k) Pertsona jakin bati erasan edo eragin egiten dioten zerbitzu edo jarduerak oro har edo pertsona horrek zuzen nahiz zehabidez sortu dituenak.

8. artikulua. Lurralde aplikazioa.

Foru Lege hau Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek ematen dituzten zerbitzu edo jardueren alderako tasei aplikatuko zaie, non ere eman edo egiten diren.

9. artikulua. Sorrera.

1. Tasak momentu hauetan sortuko dira, zergagaia nolakoa den:

a) Jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egiteko baimena ematen denean.

b) Subjektu pasiboaren eskaera beharrezkoa ez denean, tasa Administrazio zerbitzu edo jar-

duera ematean sortuko da, aurrezko gordailua eskatzea ezertan galarazi gabe.

c) Egintza abiarazten duen eskaera edo espedientea aurkezten denean, zeina ez baita egingo edo tramitatuko tasaren zenbatekoa sartu arte.

2. Tasak epez epe sortzen diren kasuetan, kasuko erregistro, errolda edo matrikulan egindako altaren likidazioa jakinarazi ondoren, zilegi izanen da handik aurrerako likidazioak taldeka jakinaraztea Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarkiak argitaratuz.

10. artikulua. Subjektu pasiboa.

1. Tasen subjektu pasibo izanen dira jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu bereziaren onura hartzen duten pertsona fisiko nahiz juridikoak, edo zergagaia osatzen duten zerbitzu edo jarduera publikoek pertsonalki edo beren ondasunetan erasan edo on egiten dieten pertsonak.

2. Kasua gertatzen bada, herentzia banatuga-beak, ondasun baldernak eta nortasun juridikorik eduki ez eta zerga kentzeko moduko unitate ekonomiko nahiz ondare banakatu bat osatzen duten beste entitateak ere hartuko dira subjektu pasibotzat.

3. Tasa bakoitzaren arau berariazkoak zilegi izanen du zergadunaren ordezkioak ezartzea zergagaiaren ezaugarriengatik hala komeni bada.

Bereziki, halakotzat hartuko dira, etxebizitza edo lokal hartzaileei erasan edo on egiten dieten zerbitzu edo jardueren alderako tasetan, eraikin horien jabeak; horiek zilegi izanen dute, hala tokatzen bada, kuota horiek kasuko onuradunei egoztea.

4. Zergagaia egitean bi onuradun edo gehiago biltzen badira, obligazio solidarioa izanen dute, non eta tasa bakoitza gobernatzeko arauan espreski besterik agintzen ez den.

11. artikulua. Zerga onurak.

Foru Komunitateko Administrazioa, Estatua eta gainerako lurralde nahiz instituzio erakundeak daude tasetatik salbuetsirik.

Hala ere, zilegi izanen da tasa bakoitzaren arauetan beste onura fiskal batzuk ere aurreikus-tea, zergagaiaren ezaugarriengatik edo subjektu pasiboaren izaeragatik hala komeni bada.

12. artikulua. Tasaren osagaiak.

1. Tasa kuotaren zenbatekoa finkatzeko, kontuan hartuko da tasen emaitzak, osotara, ez diola goiti egin behar kostu osoari.

2. Jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu bereziaren alderako tasen zenbatekoak kasuko merkatu balioa izanen du goiko muga edo balio horren ondoriozko baliagarritasunarena.

Mehatze eta Hidrokarburoetarako baimen eta eraikipenen kasuetan, eskubidearen gai den azalera kontuan hartuko da.

3. Zerbitzu edo jarduera bat eman edo egitearen alderako tasen zenbatekoak osotara ez dio inoiz goiti egingen kasuko zerbitzu edo jardueraren kostu egitezko nahiz igarritakoari, eta halakorik ezean, hartutako prestazioaren balioari.

Zenbateko hori finkatzeko, zuzeneko nahiz zeharbideko kostuak hartuko dira aintzat, bai eta kostu finantzarioak, inmobilizatua amortizatu beharrak sortuak eta tasaren xede den zerbitzu edo jarduerari egoki eutsi eta garatu ahal izateko behar diren kostuak ere, zein ere den kostu horiek berdintzeko erabiltzen den aurrekontua. Nolanahi ere, kontuan hartuko da zein kostu sozial edo onura sozial sortzen dituen subjektu pasiboak tasaren kostua eta beraren baliagarritasun soziala elkarretatik hurbiltzeko egiten dituen ekintza, jarduera edo zerbitzuek.

4. Zilegi izanen da tributu kuota kopuru finko bat izatea, hartarako propio jarria, edo zerga oinarritzat hartzen diren osagai kuantitatibo batzuek aplikatzeko duten karga tasa baten arabera finkatzea, edo aldi berean bi prozeduren arabera ezartzea.

5. Erabilera pribatiboak edo aprobetxamendu bereziak berekin ekartzen badute jabari publikoa nabarmen hondatzea eta hondamen hori ez bada-go tasaren beraren erregulazioan aurreikusia, onuraduna, kasurako tokatzen den tasa pagatu beharra ezertan galarazi gabe, beharturik egonen da kasuko konpontze edo berregite gastuak berdintzera. Kalte horiek ezin berdinuzkoak badira, kalteordaina hondatu diren ondasunak edo kalte hartutakoaren hondamenaren balioa adinako diru kopurua izanen da.

6. Tasa berri bat ezartzeko proposamen guztiekin edo lehendikako tasa bat berariaz aldatzekoekin batera txosten ekonomiko finantzario bat aurkeztu beharko da kasuko baliabide edo jardueraren balio edo kostuaren gainekoa eta proposatu den tasaren zenbatekoa justifikatzeko arrazoi gainean.

7. Tasak finkatzeko kontuan hartuko da, tributuaren ezaugarriak ikusita hala bide bada, tasa horiek pagatu behar dituzten pertsonen gaitasun ekonomikoa.

13. artikulua. Tasen kudeaketa.

1. Tasa bakoitza borondatezko epean kudeatu, kitatu eta biltzea zergapeko jarduera egin, kasuko zerbitzua eman edo jabari publikoaren erabilera baimendu behar duen Departamentuari edo erakunde autonomoari dagokio, ezertan galarazi gabe Ekonomi eta Ogasun Departamentuak betearazpen bidezko zerga bilketa edo ikuskapenak egiteko eskumena. Eskumen horiek bai tasei dagokienez eta bai tasen kudeaketa esleitu zaien erakundeei dagokienez erabiliko ditu.

2. Nafarroako Gobernuari dagokio Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren eginkizunak eta beste Departamentu eta kudeaketa erakundeenak nola koordinatu arautzea.

3. Tasak kudeatzeko aintzat hartuko dira betiere Tributuari buruzko Foru Lege Orokorren eta bera garatzeko arauen printzipio eta prozedurak, eta bereziki tributu kitapenak, zerga bilketa, tributu ikuskapena eta Administrazio bideko agintzen errebisioa arautzeko xedapenak.

4. Tasa epez epe sortzen denetakoa bada, zerbitzura onartzeko ebazpen berriak eman beharrik sortzen ez duten zerbitzu jarraituak ematen direlako, tasa hartzen duen erakundeak edo erakundeek ez dute zilegi izanen tasa pagatu ez delako zerbitzua etetea, non eta tasaren araudiak hartarako baimena ematen ez dien, tasaren zenbatekoa premiamendu bidez eskatzea ezertan galarazi gabe.

14. artikulua. Autokitapenak.

Tasen subjektu pasiboak beharturik daude tributuen autokitapen operazioak egitera eta ondoriozko tributu zorra sartzera foru lege honetan aurreikusten diren kasuetan eta erregelamendu bidez agintzen diren kasuetan.

15. artikulua. Itzulketak.

Eskatutako tasak itzuli beharko dira subjektu pasiboari ezin egozteko moduko arrazoiengatik haien zergagaia gertatzen ez bada.

16. artikulua. Zehapen erregimena.

Zehapen espedienteak kalifikatzeko eta zehapenak ezartzeko tributuei buruzko xedapen orokorak hartzen dira jarraibide.

III. TITULUA

Prezio publikoak

17. artikulua. Adigaia.

Prezio publiko dira zerbitzu edo jarduerak zuzenbide publikoko araubidean eman edo egitearen aldera pagatzen diren diruordainak, baldin

eta sektore pribatuak ere ematen baditu zerbitzu edo jarduera horiek eta administratuak bere borondatez eskatzekoak badira foru lege honetako 5. artikuluaaren arabera.

18. artikulua. Nola ezarri eta aldatu prezio publikoak.

1. Nafarroako Gobernuak finkatuko du zein zerbitzu edo jarduera diren prezio publikoak izateko modukoak, Ekonomi eta Ogasun Departamentuak eta zerbitzu edo jarduera horien ematen dituen Departamentu edo Erakundeak batera proposatuta.

2. Hauek ezarri edo aldatu ahalko dituzte prezio publikoak:

a) Prezio publikoak jaso behar dituen erakundeak gaineko duen Departamentuak eta hark proposatuta.

b) Zuzenean erakunde autonomoek, gaineko duten Departamentuaren baimena aurrez dutela.

3. Prezio publikoen zenbatekoa ezarri edo aldatzeko proposamen guztiekin batera txosten ekonomiko-finantzario bat aurkeztu beharko da, proposatzen den zenbatekoa eta kasuko kostuen estaldura finantzarioa justifikatzeko.

19. artikulua. Nork pagatu behar dituen.

1. Prezio publikoen zenbatekoak gutxienez kasuko zerbitzu edo jarduerak eman edo egiteak sortzen dituen diru kostuak berdintzeko adinakoak izanen dira.

2. Arrazoi sozial, ongintzako, kultural edo interes publikoengatik komeni bada, zilegi izanen da aurreko lerroaldean agindu den baino gutxiagoko prezio publikoak ezartzea, aurrez hartarako behar diren aurrekontu aurreikuspenak hartuta diruz lagundutako prezio zatia berdintzeko.

21. artikulua. Administrazioa eta kobrantza.

1. Prezio publikoak administratu eta kobratzeko ardua, prezio horiek jaso behar dituzten Departamentu eta erakundeek izanen dute.

2. Prezio publikoa pagatzeko eginbidea zerbitzu edo jarduera eman edo egiten hasten denean bertan sortzen da, baina zilegi izanen da haien zenbateko oso nahiz partziala aurreratzeko edo aurrez pagatzeko agintzea.

3. Prezio publikoak eskudirutan nahiz tinbre gaietan pagatuko dira.

4. Prezio publikoa pagatu beharrean dagoenari ezin egozteko moduko arrazoiengatik delako zerbitzu edo jarduera eman edo egiten ez denean,

kasuko dirua itzuli beharko da edo, ikuskizunen kasuan, sarrerak trukatu, hala bide denean.

5. Zilegi izanen da prezio publikoen alderako zorrak premiamendu bidez eskatzea, araudi indardunak agintzen duen moduan.

6. Foru lege honetan espreski agintzen ez den guztian, prezio publikoak administratu eta kobratzeko, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeak eta aplikatzeko zaizkien beste arau guztiek agintzen dutena hartuko da aintzat.

Hala ere, preskripzioari eta bidegabeki jasotako itzuli beharrari dagokienez, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrak eta bera garatzeko arauak agintzen dutena aplikatuko da.

IV. TITULUA

Foru Komunitateko Administrazioaren tasa orokorrak

KAPITULU BAKARRA

Zerbitzu administratiboen alderako tasa

22. artikulua. Zergagaia.

1. Tasaren zergagaia da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek honako Administrazio zerbitzuak ematea:

- a) Ziurtagiriak ematea
- b) Dokumentuak konpultsatzea
- c) Erregistro ofizialetako inskripzioak
- d) Ahalaordeak eta legitimazioa frogatzeko agiriak askiestea.

2. Administrazio zerbitzu horiek berariaz foru lege honetan arautzen diren beste tasa batzuen azpian daudenean, tasa honetatik salbu egonen dira.

23. artikulua. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasibo dira aurreko lerroaldean aipatu zerbitzuak eskatzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.

24. artikulua. Sorrera.

Tasa, zergagai den zerbitzua emateko eskaera egiten denean bertan sortzen da.

25. artikulua. Tarifa

Tasak honako tarifa izanen du:

		PEZETAK	EUROAK
1	Ziurtagiriak emateagatik (ziurtagiriko):	832	5
2	Dokumentuak konpultsatzeagatik (kopiako)	416	2,50
3	Erregistro ofizialetan inskribatzeagatik (inskripzioko):	416	2,50
4	Ahalaordeak eta legitimazioa frogatzeko agiriak askiesteagatik (dokumentuko):	998	6
5	Administrazio espediente bat kopiatu edo berregitea berekin duten ziurtagiriak emateagatik:	333 pta. eta beste 10 pta. berregindako orriko	2 euro eta beste 0,06 euro berregindako orriko
6	Administrazio espediente bat kopiatu edo berregiteagatik:	10 pta. berregindako orriko	0,06 euro berregindako orriko

26. artikulua. Salbuespenak.

Honakoak daude tasatik salbu:

a) Foru Komunitateak edo haren erakunde autonomoek pagatutako dirutzak frogatzeko ziurtagiriak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan aurkeztekoak.

b) Administrazio langileek beren lanpostuko beharretarako eskatzen dituzten ziurtagiriak ematea.

V. TITULUA**Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko tasak****I. KAPITULUA****Azterketa eskubideen tasak****27. artikulua.** Zergagaia

Tasaren zergagai dira Administrazioak Administrazioa sartzeko hautapen probetarako ematen dituen zerbitzuak.

28. artikulua. Subjektu pasiboak

Tasaren subjektu pasibo dira zergagai diren zerbitzuak eskatzen dituzten pertsona fisikoak.

29. artikulua. Sorrera.

Tasa foru lege honetako 30. artikulua aipatzen dituen hautapen probetan inskribatzeko eskaera aurkezten denean bertan sortzen da.

30. artikulua. Tarifa.

Tasak tarifa hau izanen du:

		PEZETAK	EUROAK
1	Karrerako funtzionarioen A mailara sartzeko:	4.160	25
2	Karrerako funtzionarioen B mailara sartzeko:	2.995	18
3	Karrerako funtzionarioen K mailara sartzeko:	1.997	12
4	Karrerako funtzionarioen D eta E mailara sartzeko:	998	6

31. artikulua. Salbuespenak

Honakoak daude tasatik salbu:

a) % 33 edo gehiagoko elbarritasuna duten pertsonak.

b) Hautapen proben deialdia egin aurretik hila-betez edo luzarago lan-eskatzaille gisa inskribaturik egon diren pertsonak. Salbuespen hau izate-

ko baldintza izanen da kasuko epean lan eskaintza egoki bati muzin egin ez izana eta lanbide sustapen, prestakuntza edo eraberritze ekintzetan parte hartzeko uko egin ez izana eta hilabeteka kontatuta lanbide arteko gutxieneko soldatetik gorako den dirusarrerarik ez izatea.

II. KAPITULUA**Nafarroako Aldizkari Ofiziala saldu eta bertan iragarkiak argitaratzearen gaineko tasa****32. artikulua.** Zergagaia.

Tasaren zergagaia da Nafarroako Aldizkari Ofizialaren paperezko aleak saldu edo harpidetzea eta paperezko edizioan iragarkiak argitaratzea.

33. artikulua. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasibo dira Nafarroako Aldizkari Ofizialaren paperezko aleak erosi, haren harpidetza hartu edo bertan iragarkiak argitaratzeko eskatzen dutenak.

34. artikulua. Sorrera.

1. Nafarroako Aldizkari Ofiziala erosi edo haren harpidetza hartzearen gaineko tasa eskatzen diren momentuak sortzen da.

2. Iragarkiak argitaratzearen gaineko tasa iragarki horiek sartzeko eskaera egiten den momentuan sortzen da. Hala ere, iragarkia argitaratu eta zein tarifa tokatzen den finkatu ondoren pagatuko da.

35. artikulua. Tarifak.

Tasak honako tarifak izanen ditu:

1. Nafarroako Aldizkari Ofiziala jendeari saltzeko tarifa aleko 90 pezetakoa izanen da (0,54 euro) eta hamabi hilabeteko harpidetzagatik 10.815 pezetakoa (65 euro). Hilabete aurretik edo lehenago argitaratu aleen tarifa, alerik geratzen bada, aleko 150 pezetakoa izanen da (0,90 euro).

2. Iragarkiak sartzeko honako tarifa dago:

a) 15 pezeta (0,90 euro) hitzeko.

b) 24.958 pezeta (150 euro) orrialdeko, edo erdi bat nahiz laurden bat osatu arteko parte proportzionala taulak edo irudiak sartzan direnean.

Tarifa horiek 100eko 50 batean gehituko dira iragarkia laster-beharrez sartzan denean.

36. artikulua. Salbuespenak.

Tasatik salbu egonen da Nafarroako Aldizkari Ofizialean nahitaez sartu beharreko Lege, Xedapen eta Ebazpenak argitaratzea.

III. KAPITULUA**Elkarteen erregistroko, fundazioen erregistroko eta lanbide kidegoen erregistroko ekintzen gaineko tasa****37. artikulua.** Zergagaia.

Tasa honen zergagai dira liburuak prestatzea xedapen indardunek aginduta Elkarteen Erregistroan, Fundazioen Erregistroan Eta Lanbide Kidegoen Erregistroan prestatu edo inskribatu behar diren egintzak, gertaerak eta dokumentuak inskribatu eta zertifikatzea.

38. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira aurreko artikulua aipatzen dituenetako zerbitzuren bat eskatzen duten Pertsona Fisikoak.

39. artikulua. Sorrera.

Tasa hau, zergagai den zerbitzua hartzeko eskaera egiten denean bertan sortzen da.

40. artikulua. Tarifak

Tasak honako tarifa hauek izanen ditu:

			PEZETAK	EUROAK
1		Elkarteen erregistroa:		
	1.1	Eratzea inskribatzeagatik:	1.497	9
	1.2	Estatutuen aldaketa inskribatzeagatik:	749	4,50
	1.3	Beste edonolako inskripzio bakoitzarengatik:	500	3
	1.4	Ziurtagiriak emateagatik:	998	6
	1.5	Liburu prestatze bakoitzarengatik:	500	3
2		Fundazioen Erregistroa:		
	2.1	Eratzea inskribatzeagatik:	6.988	42
	2.2	Estatutuen aldaketa edo desegipena inskribatzeagatik:	4.992	30

3	2.3	Beste edonolako inskripzio bakoitzarengatik:	2.995	18
	2.4	Ziurtagiriak emateagatik:	998	6
		Lanbide kidegoen Erregistroa.		
	3.1	Lanbide kidegoen eratzea inskribatzeagatik:	6.988	42
	3.2	Nafarroako Lanbide Kidegoen eratzea inskribatzeagatik:	6.988	42
	3.3	Bategite, eraxtekitze, lizenziatze eta desegite baten inskripzio bakoitzarengatik:	4.992	30
	3.4	Estatutuen aldaketa inskribatzeagatik:	4.992	30
	3.5	bestelako inskripzio bakoitzarengatik:	2.995	18
	3.6	Ziurtagiriak emateagatik:	998	6

IV. KAPITULUA

Jokotik heldu diren tasak

41. artikulua. Zergagaia.

Tasa hauen zergagai dira dokumentuak, jokoak instalatu nahiz ustiatzeko baimenak, lizentziak, baimenak eta foru lege honetako 44. artikuluan aipatzen diren beste prestazioak.

42. artikulua. Subjektu pasiboak.

Tasa honen subjektu pasibo dira zergagai diren zerbitzuak hartzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.

43. artikulua. Sorrera.

Tasa hau, zergagai den zerbitzua hartzeko eskaera egiten denean bertan sortuko da.

44. artikulua. Tarifa

Tasa honek honako tarifa hau izanen du:

		PESETAS	EUROS
1	Erregistroan joko enpresak inskribatzeagatik:	5.990	36
2	Joko eta josteta makinaren ereduak homologatu eta erregistroetan inskribatzeagatik:	24.958	150
3	Aurreko zenbakian aipatu diren ereduaren homologazioa edo erregistroetako inskripzioak aldatzeagatik:	12.479	75
4	Bestelako joko materialak homologatzeagatik:	14.975	90
5	Bingo aretoak ustiatzeko baimenak:	299.994	1.803
6	Bingo aretoak ustiatzeko baimenak berritzea:	140.097	842
7	Lanbide dokumentuak luzatzea:	2.995	18
8	Joko aretoak ustiatzeko baimena:	59.982	360,50
9	Joko aretoak ustiatzeko baimena berritzea:	27.994	168,25
10	Joko makinak instalatzeko baimena:	24.958	150
11	Joko makinak titularrez aldatzea eta truke fiskalak:	4.992	30
		makinako	makinako
12	Zozketa, tonbola eta ausazko konbinazioetarako baimena:	7.987	48

V. KAPITULUA

Jendaurreko ikuskizunen eta josteta jardueren gaineko tasak

45. artikulua. Zergagaia.

Tasa honen zergagai dira foru lege honetako 48. artikuluan aipatzen diren jendaurreko ikuskizunak eta josteta jardueren baimena emateari, dokumentuak emateari eta beste prestazioei dagozkien zerbitzuak.

46. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira zergagai diren zerbitzuak hartzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.

Tasa hau, zergagai den zerbitzua hartzeko eskaera egiten denean bertan sortuko da.

48. artikulua. Tarifa.

Tasak honako tarifa izanen du:

		PEZETAK	EUROAK
1	Zezenketei, burtzi zezenketei, mistoei eta pikadoreekiko txekorketei baimena ematea:	4.992 ikuskizuneko	30 ikuskizuneko
2	Pikadorerik gabeko txekorketei baimena ematea:	2.995 ikuskizuneko	18 ikuskizuneko
3	Zezen ikuskizunetarako bestelako baimenak:	1.997 ikuskizuneko	12 ikuskizuneko
4	Jendaurreko ikuskizunak eta josteta jarduerak eremu publikoetan egiteko baimena ematea:	5.990 ikuski- zuneko edo jarduera baimen- du bakoitzeko	36 ikuskizu- neko edo jar- duera baimen- du bakoitzeko
5	Jendaurreko ikuskizun eta josteta jardueren enpresak erregistroan inskribatzeagatik:	5.990	36
6	Zezenketako profesionalak erregistroan inskribatzeagatik:	2.995	18

VI. KAPITULUA**Trafikoaren inguruko zerbitzu edo jardueren gaineko tasa**

Tasa honen subjektu pasibo dira zergagai diren zerbitzu edo jarduerak eskatu edo hartzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak.

49. artikulua. Zergagaia

Tasa honen zergagai dira foru lege honetako 52. artikuluan aipatzen diren zerbitzu edo jarduerak.

51. artikulua. Sorrera.

Tasa hau, zergagai den zerbitzua hartzeko eskaera egiten denean bertan sortuko da.

52. artikulua. Tarifa.

Tasak honako tarifa izanen du:

50. artikulua. Subjektu pasiboa.

		PEZETAK	EUROAK
1	Nafarroako Foruzaingoak zerbitzuak eman eta jarduerak egitearen ondoriozko tasa.		
1.1	Nafarroako kirol federazio baten egutegian sartu gabeko kirol probetan begirale, segurtasun emaile eta laguntzaile aritzea erregelamenduz finkatzen diren baldintzetan:		
	a) Bizikleta lasterrak, etapako: Kategoriak:		
	- Eskola	14.975	90
	- Gaztetxoak	49.999	300,50
	- Junior	59.982	360,50
	- 23z behera	64.974	390,50
	- Elitea	69.965	420,50
	- Master	69.965	420,50
	- Zaharrak	64.974	390,50

	- Emakumeak	59.982	360,50
	- Profesionalak	140.097	842
	- Ziklokirolariak	64.974	390,50
	b) Bestelako kirol probak:	29.991	180,25
1.2	Zikloturisten ibilaldietan eta eremu publikoetako beste jarduera batzuetan begirale, segurtasun emaile eta laguntzaile aritzea:	25.000	150,25
1.3	Garraio bereziei lagun egitea. Kilometroko:	50	0,30
1.4	Ibilgailuak bide publikotik kentzeko zerbitzua:		
	a) Bizikletak, ziklomotoreak:	2.995	18
	b) Motozikleta, motokarro eta eite bereko beste ibilgailuak:	3.993	24
	c) Automobilak, turismoak, kamionetak, furgoiak eta abar, 1.000 kg-rainoko kargadunak:	7.987	48
	d) Kamioiak, traktoreak, atoiak, erdi-atoiak, kamionetak, furgonetak eta 1.000 kg kargatik gorako beste ibilgailuak:	11.980	72
1.5	Ibilgailuak altxategietan egoteko zerbitzua, egonaldia hasi eta 12 ordu pasatu direnetik aurrera:		
	a) Bizikletak, ziklomotoreak:	333	2
	b) Motozikletak, motokarroak eta eite bereko beste ibilgailu batzuk:	707	4,25
	c) Automobilak, turismoak, kamionetak, furgoiak eta bar, 1.000 kg-rainoko kargadunak:	1.414	8,50
	d) Kamioiak, traktoreak, atoiak, erdi-atoiak, kamionetak, furgonetak eta 1.000 kg kargatik gorako beste ibilgailuak:	2.995	18
1.6	Forzaingoak emandako txostenak:	5.990	36
2	Zirkulazioaren Erregelamendu Orokorreko 13. artikuluan aurreikusten diren zirkulazio baimen bereziak ematearen alderako tasa.		
2.1	Hilabetez bi bidaia egiteko baimena:	2.579	15,50
2.2	Hiru hilabetez bost bidaia egiteko baimena:	7.820	47
2.3	Sei hilabetez hogeit hamar bidaia egiteko baimena:	12.479	75
2.4	Urtebetez ibilgailu bakar batek nahi adina bidaia egiteko baimena:	20.798	125
2.5	Urtebetez edozein ibilgailurekin nahi adina bidaia egiteko baimena:	51.996	312,50
2.6	Aurreko lerroaldeetan aipatu baimen berezien orijinalaren kopia emateagatik:	1.539	9,25
2.7	Nekazari lanetako eta herrilantetako ibilgailuak zirkulatzeko baimen bereziak 2.1, 2.2, 2.3, 2.4 y 2.5 zenbakietan aurreikusten diren balio-aldietarako emanen dira, bidai kopururik aipatu gabe.		

VI. TITULUA

Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren tasak

I. KAPITULUA

Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskaleko dokumentazioa edo informazioa eman eta datuak zertifikatzearen alderako tasa

53. artikulua. Zergaia

Tasa honen zergaia da foru lege honetako Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Lurralde Aberastasunaren Atalak, parte batek hala eskatu-

ta, bere agiritegietan edo Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskalean ageri diren datuen zertifikazioak eta beste edozein dokumentu edo informazio ematea, Nafarroan dauden ondasunen gainekoak, eta bai halako daturik ez edukitzearen frogagiriak ematea ere bai.

54. artikulua. Subjektu pasiboa.

Tasa honen subjektu pasibo dira informazio hori eskatzen duten pertsona fisiko nahiz juridikoak.

55. artikulua. Sorrera.

Tasa subjektu pasiboak eskatu dokumentua edo informazioa ematen denean bertan sortuko da, nahiz eta zilegi izanen den aurrezko gordailu bat egiteko agintzea.

Tasak honako tarifa izanen du:

A) INFORMAZIO ALFANUMERIKOA:

56. artikulua. Tarifa.

1. Papera euskarri.

		PEZETAK	EUROAK
A.1	Hiri unitatea baloratzeko orria:	100	0,60
A.2	Titularren arabera ondasun orria, orrialdeko:	100	0,60
A.3	Hiri unitateen titulartasun orriak:	100	0,60
A.4	Landa lurzati baten titulartasun orria:	100	0,60
A.5	"Katastro probintziala" zerrendaren fotokopia, orrialdeko:	400	2,40
A.6	Eraikinaren ezaugarri fitxaren fotokopia:	400	2,40
A.7	Lurzati zedula:	200	1,20
A.8	Balorazio eta lurzati zerrenda: Prozesua abiatzeagatik eginen da beti tarifa, horri ondoren kasuko tarifa erantsita, sortu beharreko erregistro kopuruaren arabera, baremo honekin bat:		
	Prozesua abiatzeagatik;	5.990	36
	1etik 3.000 erregistro bitarte, erregistroko;	7	0,04
	3.001etik 6.000 erregistro bitarte, erregistroko	5	0,03
	6.001 erregistrotik aurrera, erregistroko;	3	0,02
A.9	Titular, balorazio eta lurzati zerrenda. Informazio hau delako ondasuna beren mugapean daukaten toki entitateei baizik ez zaie emanen. tarifa prozesua abiatzeagatik eginen da horri ondoren kasuko tarifa erantsita, sortu beharreko erregistro kopuruaren arabera, baremo honekin bat:		
	Prozesua abiatzeagatik;	5.990	36
	1etik 3.000 erregistro bitarte, erregistroko;	7	0,04
	3.001etik 6.000 erregistro bitarte, erregistroko;	5	0,03
	6.001 erregistrotik aurrera, erregistroko;	3	0,02
A.10	A.8 eta A.9 ataletako zerrenden bigarren kopiak, orriko:	17	0,10
A.11	Landa nahiz hiriko eraikinen ezaugarri orriak, haien balio benetakoa kalkulatzeko beharrezkoak:	100	0,60

2. Euskarri informatikoa: "txt" testu fitxategia "askii" formatuan.

		PEZETAK	EUROAK
A.12	Ondasunen balorazioaren fitxategia: Prozesua abiatzeagatik tarifatu da beti, ondoren kasuko tarifa erantsita, sortu beharreko erregistro kopuruaren arabera, baremo honekin bat:		
	Prozesua abiatzeagatik;	4.992	30
	1etik 3.000 erregistro bitarte, erregistroko;	7	0,04
	3.001etik 6.000 erregistro bitarte, erregistroko;	4	0,03
	6.001 erregistrotik aurrera erregistroko;	2	0,01
A.13	Titular, balorazio eta lurzati zerrenda. Informazio hau delako ondasuna beren mugapean daukaten toki entitateei baizik ez zaie emanen. tarifa prozesua abiatzeagatik eginen da horri ondoren kasuko tarifa erantsita, sortu beharreko erregistro kopuruaren arabera, baremo honekin bat:		

A.14	Prozesua abiatzeagatik;	4.992	30
	1etik 3.000 erregistro bitarte, erregistroko;	7	0,04
	3.001etik 6.000 erregistro bitarte, erregistroko;	4	0,03
	6.001 erregistrotik aurrera, erregistroko;	2	0,01
	A.12 eta A.13 ataletan aipatu fitxategiak A.8 edo A.9 ataletako fitxategiekin batera ematen direnean, kasuko tarifak A.12 edo A.13 ataletarako ezarritakoak izanzen dira, 17 pta./orriko gehituak. (0,10 euro).		

B) INFORMAZIO GRAFIKOA:

1. Papera euskarri:

	DIN A3 edo DIN A4 fotokopia, zuri-beltzean:	PEZETAK	EUROAK
G.1	"Katastro probintziala" lurzatien planoak: fotokopiako	400	2,40
G.2	Landa nahiz hiri lurzatien planoak:	400	2,40
G.2	Landa nahiz hiri lurzatien planoak:	400	2,40
G.3	Ortofoto tintaztatua:	400	2,40
G.4	Krokisa: Orriko	400	2,40
G.5	Eraikinaren argazkia:	400	2,40

	Informazio digital nahiz eskaneatua inprimatzea:	PEZETAK	EUROAK
G.6	Krokis eskaneatua: Orriko	200	1,20
G.7	Eraikinaren argazki eskaneatua (Z-Bean inprimatua):	100	0,60
G.8	Edozein eskalatako leiho grafikoa (Z-Bean inprimatua)	200	1,20

	DIN A1 katastro kartografia	PEZETAK	EUROAK
G.9	1:5000 eskalako landa lurzatien planoak: paper normalean	2.995	18
	paper fotografiko edo poliesterrean	4.492	27
G.10	1:10.000 eskalako landa lurzatien planoak: paper normalean	2.995	18
	paper fotografikoa edo poliesterrean	4.492	27
G.11	1/500 edo 1/1.000 eskalako hiri lurzatien planoak (zein dagoen eskuragai): paper normalean	2.995	18
	paper fotografiko edo poliesterrean	4.492	27
G.12	Hirigunearen laburpen-planoak (hainbat eskala): paper normalean	2.995	18
	paper fotografiko edo poliesterrean	4.992	30
G.13	1:5.000 eskalako lurzatien planoak ortofotoplanoko irudiaren gainekoa: paper normalean	3.993	24
	paper fotografiko edo poliesterrean	5.990	36

	U.T.M. koordinatuak	PEZETAK	EUROAK
G.14	Lurzati ingurunearen plano katastrala, lurzatiako muga edo puntu denituen koordinatuak (x-y) adierazita, gehienez 10:	4.992	30

	Argazki handituak	PEZETAK	EUROAK
G.15	24x24 kontaktua:	400	2,40
G.16	50x50 argazki handitua:	2.995	18
G.17	50x60 argazki handitua:	3.494	21
G.18	70x70 argazki handitua:	4.492	27
G.19	70x80 argazki handitua:	5.491	33
G.20	90x80 argazki handitua:	7.487	45
G.21	100x100 argazki handitua:	8.486	51

2. Euskarri pelikula:

	Argazki handituak	PEZETAK	EUROAK
G.22	24x24 diapositiba:	1.497	9
G.23	50x50 argazki handitua:	4.992	30
G.24	50x60 argazki handitua:	5.491	33
G.25	70x70 argazki handitua:	8.486	51
G.26	70x80 argazki handitua:	8.985	54
G.27	90x80 argazki handitua:	12.479	75
G.28	100x100 argazki handitua:	13.477	81
G.29	Fitxaren kopia fotografikoa:	1997	12

3. Euskarri informatikoa: DGN (Mikrostation)
edo DWG (Autokad) formatuan:

	Katastro mapak	PEZETAK	EUROAK
G.30	1:500 eta 1:5.000 orrietan ematen dira, disketean edo disko konpaktuan (KD). Nolanahi ere beti tarifatuko da prozesua abiatzeagatik, eta horri ondoren kasuko tarifa erantsiko, sortu beharreko erregistro kopuruaren arabera, baremo honekin: Euskarri informatikoko datu grafikoak eskuratzeko prozesua abiatzeagatik: 1/500 edo 1/5000 eskalako orriko:	2.995 1.997	18 12

	U.T.M. koordinatuak	PEZETAK	EUROAK
G.31	Lurzati ingurunearen plano katastrala, lurzatiako muga edo puntu definituetako bertizeen koordinatuak (x-y) adierazita, gehienez 10:	4.992	30

K) INTERNET.

		PEZETAK	EUROAK
I.1	Lurzati zedula:	100	0,60

57. artikulua. Merkatzeak.

Nafarroako Toki Entitateei 100eko 50ean merkatuko zaizkie A.12, A.13 eta G.30 ataletako tarifak delako informazioa bere mugapeari dagokiona denean eta ofizialki eskatuta eta haiexek erabiltzeko ematen denean.

II. KAPITULUA**Inprimakiak, Programa eta aplikazio informatikoak saltzearen alderako tasa****58. artikulua.** Zergagaia

Tasa honen zergagaia da Inprimakiak, Programa eta aplikazio informatikoak saltzea.

59. artikulua. Subjektu pasiboa.

